

KALE ERASOAK. Bere jarduerarekin herritarren eskubideak defenditzen jarraituko duela dio Uzturre kolektiboak

Tolosako Uzturre abokatu bulegoari molotov koktelez eraso diote

EAJren ustez, «piromanoen ikasleek Torquemadaren teknikak ondo ikasi dituztela dirudi»

Agentziak | DONOSTIA

Astearte gauean molotov koktelak bota zituzten Tolosako Uzturre abokatu kolektiboaren bulegora. Eraso goizaldeko 01:00ean izan zen, Kondeko Aldapa kalean. Horren ondorioz, etxearen aurrealdea belztu eta ondoan zegoen auto bat kaltetu zuen. Erasotzaileek etxean egindako lehergailu bat ere jarri zuten, baina ez zuen eztanda egin. Kanpin-gas bonbona bat, erregaiez beteriko botila bat eta detonagailu bat zituen lehergailua aurkitu zuen Ertzaintzak bertan.

Bulegoan sei abokatuk lan egiten dute, horietako hiru EAJ eta EAren hautetsiak: EAJko legebiltzarkide Bakartxo Tejeria, Asteasuko EAKo alkate Iñaki Amenabar eta Altzoko EAJko zinegotzi ohi Pilar Zubiarrain. Ertzaintzaren buru baten emazteak ere bertan egiten du lan.

Erasoa dela eta, Uzturre kolektiboak bere «egonezina eta haserre» azaldu zuen atzo ohar batean «astakeria honengatik». Era berean, «orain arte izandako lan ildoarekin jarraitzeko» asmoa azaldu zuen. «Gure jardura profesionalaren bitartez herritar guztien eskubideak defendituko ditugu», adierazi zuen.

«ENAMen kale borrokaren akademia»

EAJko Gipuzko Buru Batzarrak prentsa ohar batean adierazi zuenez, erasoak «ez du merezi arreta politikorik». «Izan ere, egileek, ENAMen kale borrokaren akademiatik etorritakoek, tratamendu psikologikoa behar dute, eta premia handiz».

«Erdi Aroko inkisidore espainolak gailendu nahirik, piromanoen ikasle berriek, Torquemada *ospetsuak* sua eta hondamendi sistematikoaren bitartez diseinatutako *arimak garbitzeko* teknikak oso ondo ikasi dituztela dirudi», adierazi zuen Gipuzkoako EAJk. «Jakín beharko lukete gezurrean eta autoengainuan oinarritutako analisi politikoez bakarrez eta euren ideiak erabateko porrotera eramango dituztela», gaineratu zuen.

Ildo beretik, Josune Ariztondo EAJren EBBko idazkariaren aburuz, «badirudi ETak azkenaldian bortxaz zigortu nahi dituela abertzaleen erasorekin zeri-



JUAN HERRERO / EFE

Uzturre abokatu taldearen bulegoko aurrealdea belztuta gelditu zen erasoaren ondorioz.

AURREKARIAK

Pilar Zubiarrainek beste bi eraso jasan izan ditu

Herenegunoa ez da Pilar Zubiarrainek jasan duen eraso bakarra. 1997ko apirilean bere autoa erre zuten Altzon. Gainera, 1999ko urrian bere gurasoen Arretxe baserria erre zuten molotov koktelez, haiek barruan zirela. Soilik kanpoko paretak geratu ziren zutik.

Zubiarrain EHk kudeatutako Tolosaldeko zenbait udaletan izaniko irregulartasunak ikertzen ari zela eta, horrekin lotu zuten EAJko zenbait kidek eraso hori.

Adierazpen horiek ika-mika eragin zuten EAJren eta EHren artean. EAJk «jarrera mafiosoak errotik kentzeko» eskatu zion EHri, eta horrek, aldiz, Tolosaldeko herri txikiak «zigor politikoa» jarri nahi izatea egotzi zion EAJri. Joseba Egibar EAJren bozeramaileak ere astearteko eraso Zubiarrain abokatu lanarekin lotu zuen atzo. «EHk gobernatutako udaletxeetan zenbait jardura salatu izan ditu», gogoratu zuen.

ESANAK

GIPUZKOAKO EAJ

«Piromanoen ikasle berriak Torquemadaren arimak garbitzeko teknikak ondo ikasi dituztela dirudi»

ONINTZA LASA (EAKo Zuzendaritza Nazionalako bozeramailea)

«Gizakiaren oinarritzko askatasuna urratzen duen bortxa onartezina da»

PSE-EE

«Badirudi Batasuna helburu jakin batzuk zehazten ari dela, gero beste batzuek kalte egin diezaieten»

MARIA SAN GIL (Gipuzkoako PPko presidentea)

«Fanatismo erradikalak ikara sortu nahi du, izaera mafiosoko ekintzekin beldurraren legea nagusitzeko»

kusia duten zenbait pertsona eta interes».

Onintza Lasa EAKo Zuzendaritza Nazionalako bozeramaileak «faxismo gogor hau» salatu zuen. Eraso horiek «gizakiaren oinarritzko askatasuna urratzen duen bortxa onartezina dira. Kikildu beharrean, gure uste sendoak indar handiagoz berresten ditu», adierazi zuen.

Bestalde, PSE-EEko Gipuzkoako Zuzendaritzak salatu zuenez, «badirudi Batasuna

bere adierazpenekin helburu jakin batzuk zehazten ari dela, gero beste batzuek kalte egin diezaieten». Alderdien arteko «batasun demokratikoa berreskuratzea» beharrezkoa dela erakusten du horrek, PSE-EEren iritziz.

PPko Gipuzkoako presidente Maria San Gilek esan zuenez, «fanatismo erradikalak ikara sorrarazi nahi du, izaera mafiosoak duten ekintzekin beldurraren legea nagusi izan dadin».

Orioko Batasuneko zinegotzi baten autoari eraso diote

Erredakzioa | DONOSTIA

Eneko Dorronsoro Orioko Batasuneko zinegotziaren autoari hiru gurpil zulatu, haizetako-garbigailuak hautsi eta kanpoaldea margotu zioten. Antziola kalean zegoen autoa eta herenegun goizaldean kale hartako bizilagun batek Ertzaintzari dei egin zion pertsona bat kotxeari erasotzen ari zitzaiola esateko. Ertzaintzaren patruila bat bertaratu zen, baina iritsi zenerako alde egina zen erasotzailea.

Batasunak prentsa ohar baten bidez salatu zuen atzo Orion bere alderdiko kideari egindakoa. Azken boladan «gerra zikina» «berpizten ari dela adierazi zuen, eta «eraso faxistatza» jo zuen gertaera.

Batasunak azaldu du horrelako ekintzekin ez dutela ezker abertzalea «kikilduko», eta «gogor eta tinko» jarraituko dutela lanean «herri honen independentziaren alde». Gatazka politikoa gainditzeko konponbide demokratikoaren beharra ere nabarmendu zuen Batasunak.

Aretxabaletako mozioa

Anjel Bergaretxe Aretxabaletako alkateari elkartasuna adierazteko mozioa aho batez onartu zen herenegun Udalbatzarrean. Plenora Batasuneko hautetsiak soilik agertu ziren; EAJ-EA, PP eta PSE-EEko kideak ez ziren agertu. Batasunak mehatxua «estatuaren estolderian berpiztu den talde paramilitar» baten ekintza izan dela esan zuten, eta elkartasuna eskaini zion alkateari eta bere familiari.

Alkateari, abuztuaren 20an, gutunazal baten barruan bala bat eta «hurrengo ez duzu ikusiko, zuk eta zure familiak sentituko duzue» zioen oharra igorri zizkieten.

Gertaera salatzeke, etzi Herriko Plazan elkarretaratzera deitu du Udalak, *Benetako konponbide demokratikoa Euskal Herriarentzat* lelopean.